



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 25a

71. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Zientzia eta teknologiari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33.2 artikulua aldatzekoa. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (17. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da araudia alda dezan, halako moduan non Nafarroako kultur sentsibilitateak ordezkatuko dituen Kulturaren eta Arteen Nafar Kontseilu parte-hartzaile bat taxutzen ahal izanen baita. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (19. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu palestinar herriaren eskubidea, bere lurralde Israelen indarrez okupatura itzultzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu Xabierraldien ekitaldi tradizionala Hitlerren eta Francoren irudiarekin irudikatu izana. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu palestinarren aurka Israelgo gobernu sionista egiten ari den giza eskubideen urraketa larria. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Nafarroako Zeliakoen Elkartearen manifestuarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu kolpismoaren apologia egiten duten jarduerak sustatzeko aurrekontu-finantzaketarik ez babesteko. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Zeliakoaren Egun Nazionalarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabaki baitu jendaurrean salatzea edozein gobernuak edo nazioarteko potentziak Gazako populazio zibilaren aurka egindako eraso eta esku-bide-urraketa oro. Eledunen Batzarrak onetsia (23. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakitekoa ea zertan den Nazio Batuen Erakundeak Palestinako errefuxiatuentzat duen Agentziari (UNRWA) aparteko ekarpena egiteari eta finantzaketarako tresna egonkor bat aztertzeari buruz hartutako erabakiaren betetzea. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (24. or.).

—Galdera, ETako presoentzat amnistia eskatzen duen EH Bilduren koordinatzaile nagusiaren hitzei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (25. or.).

—Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusia langilez hornitze aldera onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (25. or.).

—Galdera, llegeak ezartzen duen 10 urteko epea iragan ostean, zenbait enpresaren kapitalean Sodenak parte hartzen jarraitzeko baimena luzatze aldera ez funts-ekarpen gehiagorik egin ez eta arrisku gehigarririk hartzearen baldintza bertan behera uzteko erabakiari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (26. or.).

—Galdera, erabilera-lagapeneko araubideko etxebizitza-kooperatiben ereduari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (27. or.).

—Galdera, etxebizitzarako eskubideai buruzko lege proiektuaren gainekoa. Mikel Buil García jaunak egin du (27. or.).

—Galdera, N-121-A eta A-15 errepideetako obrei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (28. or.).

—Galdera, Nafarroaren zor publikoari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (29. or.).

—Galdera, jakitekoa ea zer ekimen garatuko dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroako kontzientzia-eragozpenaren eta intsumisioaren mugimendu antimilitaristari dagokionez. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (29. or.).

—Galdera, Berriztu Elkarteari eta Eguneko Zentroko 16 toki misto kudeatzeko laguntza kontratuari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (30. or.).

—Galdera, nahitaezko soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozleei eta intsumisoei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (31. or.).

—Galdera, nahitaezko soldadutza dela-eta Armadarekin lankidetzan aritu ez ziren udaletako kargudun publikoen aurkako prozedura penal eta zibilei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Zientzia eta teknologiari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Zientzia eta teknologiari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2018ko apirilaren 13ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. ter artikulua bat gehitzekoa. Hona testua:

“2. ter artikulua. Ezagutza eta zientzia ondasun publiko gisa.

Ezagutza eta zientzia ondasun publikoak dira eta honako hauetara iristen dira: balio, informazio, datu lan edo objektuak, oro har, publikoak zein pribatuak, Nafarroako gizarte osoak baliatzen ahal dituenak, dagozkion lege-babesekin”.

Zioak: Zientziari ondasun publiko eta, beraz, ondasun komunal gisa merezi duen izaera ematea.

2. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. quinquies artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. quinquies artikulua. Herritarren parte hartzea sustatzea zientzian eta ikerketan.

Nafarroako Foru Administrazioak herritarren parte hartzea sustatuko du zientzian eta ikerketan. Xede horren aldeko neurri batzuk hartuko ditu, besteak beste honako hauek:

a) Parte hartzeko tresna malguak, herritarrei moldatuak, sortzeko bultzada ematea.

b) Zientziaren eta teknologiaren irudi bat sustatzea, arreta emanen diona bere testuinguru sozialari eta erantzukizuna hartuko duena gure planetako bizirako ekar ditzakeen ondorioei begira.

c) Bideak sustatzea herritarrei informatzeko Nafarroako zientzia eta teknologiaren errealitateari eta aurrerapeni buruz.

d) Zientziaren inplikazio sozialei buruzko ikerketak sustatzea”.

Zioak: Herritarren parte hartzea sustatzea zientzian eta ikerketan.

3. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. bis artikulua bat gehitzeko zuzenketa, legearen printzipio gidarien gainekoa. Hona testua:

“2. bis artikulua. Printzipio gidariak.

Foru lege hau, bere garapena eta bere aplikazioa gidatzen dituzten balio eta printzipioak honako hauek dira:

a) Lankidetzeta.

b) Unibertsaltasuna eta komunalismoa ezagutzarako sarbidean. Ezagutza irekia sustatzea eta zientzia ondasun publikotzat hartzea, gorde eta zabaldu beharrekoa.

c) Gizarteak zientzian parte hartzea.

d) Ezagutzaren eta haren erabileraren kudeaketa demokratizatzea.

e) Teknologia irekiak sustatzea, alegia, teknologia irisgarri eta eskuragarriak; ulergarriak; diseinu manifestua dutenak, gardena, ez opakua; oztan edo malgua, alegia, erabiltzaileak kontrolatzen ahal dituenak; balioaniztunak, aukerako erabilerak izan ditzaketenak.

f) Zuhurtasun-printzipioa: ikerketek eta haien garapenek aurreikusteko moduko ondorioak eduki behar dituzte eta, kasua bada, itzulgarriak.

g) Kalitatea eta egokitasuna.

h) Autonomia errespetatzea eta sustatzea oinarritzko ikerketa zientifikoan.

i) Ezagutzaren politiken integrazioa eta zeharkotasuna.

j) Jasangarritasuna.

k) Diskriminaziorik eza. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

l) Merezimendua eta gaitasuna.

m) Erantzukizun soziala. Erantzukizuna lan eta enpresa arloetan aplikatuzetik haratago, ziurtatu behar da teknologia berri bat ezartzeak ez diola lagunduko kolektibo ahulenen egoera okerragotzeari”.

Zioak: Gizartearentzat sentikorrek edo eztabaidagarriak izan daitezkeen jarduerak garatzea edo haien gaineko legeak egiteak balio etikoak eta printzipio gidariak eskatzen ditu.

4. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. artikuluko 3. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“3. Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI) antolatzeari ezagutzaren sorrera, garapena eta aprobeztamendu partekatua sustatzeko; bertan eta bere emaitzetan parte hartzea izatea bilatuko da, ber-

dintasunaren eta demokratizazioaren irizpidearekin. Orobat, bikaintasuna sustatuko da, elitismoa saihestuz eta Nafarroako sektore publikoarekiko, entitate sozialekiko eta sektore produktiboarekiko kooperazioa handituz”.

Zioak: Nafarroako I+G+b Sistema antolatzeak balioko du, haren bikaintasuna sustatu eta kooperazioa sektore produktiboarekiko bakarrik handitzeaz gainera, Nafarroako sektore publikoarekiko eta entitate sozialekiko ere handitzeko, elitismoa saihestuz eta sistemaren demokratizazioa sustatuz, ezagutzaren parte hartze eta aprobeztamendu partekatuen bidez.

5. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. artikuluko 4. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“4. Ikerketa sutatzea arlo eta maila guztietan, maila oinarritzkoenetatik hasi eta garatuenetaraino, oinarritzko zientziatik hasi eta zientzia esperimentalaraino eta aplikaturaino, arlo teknologikoenetik giza eta gizarte zientzietaraino”.

Zioak: Merkatuen aipua kentzea, ikerketaren azken helburu gisa agertzen baitira, eta Giza eta Gizarte Zientzietako arloak sartzea lege honen xede gisa.

6. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Helburuei buruzko 2. artikuluko 10. puntuaren bukaeran honako testu hau gehitzea:

“..., sare sozialera eta eta gizartera, oro har”.

Zioak: Entitate sozialei eta gizarteari, oro har, aitortzea Nafarroako I+G+b Sistemaren transferentzietan parte hartzeko eskubidea.

7. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Helburuei buruzko 2. artikuluko 12. puntuaren hasieran honako testu hau gehitzea:

“Ezagutza zientifikoaren komunalismoari laguntzea, ...”.

Zioak: Ezagutza zientifikoa ondasun komunala da, edo hala behar du. Jende orok erabilgarri edukitzeak ez du haren erabilgarritasuna murrizten, aitzitik, areagotu egiten du.

8. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Helburuei buruzko 2. artikuluari bigarren puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Ezagutzarako sarbidea erraztea herritarrei, ondasun publiko kolektiboa den heinean, eta gizarte zibilak Nafarroako I+G+b Sistemari parte hartzea bultzatzea”.

Zioak: “Ezagutzaren gizarte” deitutakoan ezagutza hori ondasun publiko kolektiboa da eta herritar orok izan behar du hartarako sarbidearen eskubidea. Era horretan, gizarte zibilak, prestakuntza eta informazioa oinarri, aukera izanen du I+G+b sistemak eta ezagutza zabaltzeko eta garatzeko aberasteko, beraietan parte hartuz.

9. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Helburuei buruzko 2. artikuluari hirugarren puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Nafarroako ondarea handitzea eta aberastea, zientzia, teknologia eta kultura arloetan”.

Zioak: Ikerketen ezagutza eta haien emaitzak sektore produktiboari transferitzetik haratago, ondasun zientifiko eta teknologikoa handitzeak helburu bat izan behar du, berez.

10. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Helburuei buruzko 2. artikuluari beste puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“11. Gizartearendako bidezko itzulketak bilatzea, Administrazio Publikoen bidez, honako hauetan gauzatuko direnak: patenteen gaineko eskubideak, jabetza intelektuala, jabetza industriala, I+G+b prozesuko une aurreratuetan sor daitezkeen spin off-en kapital eta etekinetan parte hartzea, eta abar.

Zioak: Entitate publikoek bultzatutako, garatutako, parte hartutako edo finantzatutako ikerketa eta garapen teknologikoen ekartzen duten edozein onuraren aprobetxamenduz da iritsiko sektore pribatura bakarrik, gizarte osora iritsi behar delako.

11. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

I. kapituluaren 2. artikuluari –Helburuak– 14. puntua gehitzeko zuzenketa; honako hau da testua:

“14. Talentuaren itzulera erraztea behar diren neurriak hartuz honako arlo hauetan: laguntza logistikoa, ekintzailatza edo kontratazioaren sustapena”.

Zioak: Parlamentu honek behin baino gehiagotan adierazi du talentua erakartzearen alde dagoela, baina hori ez da legean jaso.

12. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

3. artikuluko 3. puntua aldatzeko zuzenketa, Nafarroako I+G+b sistemari buruzkoa. Hona testua.

“3. Nafarroako I+G+b sistema jarduerak eta eragileak koordinatzeko eta ebaluatzeko eginkizunak garatzeko, Nafarroako Administrazioak Nafarroako I+G+b Sistema Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Agentzia sortuko du. Agentzia izaera publiko entitate gisa eratuko da eta bere espezifikotasunak, antolaketa zein garapen mailakoak, erregelamenduz ezarriko dira”.

Zioak: Bermatu egin behar da Nafarroako I+G+b Sistemaren kontrol publikoa, beti ere saihestuz sistema interes partikularren menpean egotea. Tresna guztiak ebaluazio agentzia bakar batek ebaluatu behar ditu, neutraltasuna bermatuz eta irizpide desberdintasuna saihestuz.

13. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. quater artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. quater artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemaren gaineko sentsibilizazioa eta dibulgazioa.

1. Nafarroako Foru Administrazioak herritarren ezagutza eta interesa sustatuko ditu Nafarroako I+G+b Sistemaren inguruan, eta zientziarekiko interesa haurtzarotik, aurrerapen zientifikoen garrantzia zabalduz irakaskuntzako maila eta gradu guztietan.

2. Nafarroako Foru Administrazioak ezagutzaren dibulgazioa bultzatuko du, sistemako eragileak eta herritarren arteko komunikaziorako bideak ezarritik.

3. Nafarroan ezagutza sareak eratuko dira, zientzia, hezkuntza, gizarte eta kultura arloetako erakundeen artean, ezagutzaren zabalpena hobetzeko, Nafarroan zientzia eta teknika dibulгатzeko dagoen gune sarearekin koordinatuz”.

tzeko, Nafarroan zientzia eta teknika dibulгатzeko dagoen gune sarearekin koordinatuz”.

Zioak: Herritarrengan sentsibilizazioa eta dibulgazioa sustatzea, Nafarroako I+G+b Sistemari dagokionez.

14. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

II. kapituluaren 4. artikulua –Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen akreditazioa– 2. puntuaren c) letra kentzeko zuzenketa. Honako testu hau kentzea proposatzen da:

“c) Estatutuetan ezarritik izatea ez duela irabazi-asmorik, eta mozkinik izanez gero I+G+b arloko jardueretarako bakarrik erabiliko direla.

Zioak: Irabazi asmorik gabekoa izatea eskaizteak balio handiko balizko eragileak uzten ditukanpoan.

15. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen akreditazioari buruzko 4. artikuluko 1.b) puntuan, “enpresa-sarera” hitzaren ondoren honako testu hau gehitzea.

“...erakunde publikoetara eta Nafarroako sare sozialera”.

Zioak: Zentro teknologikoen eginkizunetan jaso behar da transferentzia iristea ere erakunde publikoetara eta Nafarroako sare sozialera, ez bakarrik enpresa-saera.

16. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA Y PODEMOS-AHAL-DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

4. artikulua d) letra aldatzeko zuzenketa. 4. artikulua d) letraren ordean honako paragrafo bat jartzea proposatzen da:

“d) Entitate bakanak: dibulgaziorako entitateak dira, funtsezko eginkizun gisa dutenak gizartean ezagutza zientifikoa eta I+G+b arloaren emaitzak sustatzea, bai eta zientzien, matematiken, ingeniartzaren eta teknologiaren arloko prestakuntza sustatzea ere; halaber, I+G arloarekin lotutako beste entitate batzuk, aurreko motetan sartzen ez direnak”.

Zioak: Hobeki definituta geratzen da entitate bakanaren figura.

17. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA Y PODEMOS AHAL-DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

4. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Zuzenketa hori a) letraren ondoren joanen litzateke.

“4. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen akreditazioa.

1. Nafarroako I+G+b Sistemari sartu ahal izateko, eragileek frogatu behar dute hauetako bat direla: unibertsitatea, ikerketa zentroa, Osasun Ikerketarako Institutua, zentro teknologikoa, enpresaren arloko I+G+b unitatea, eragileen koordinatzailea eta entitate bakanak.

Foru lege honen ondorioetarako, definizio hauek aplikatuko dira:

a) Ikerketa zentroa: oinarritzeko eta bikaintasuneko ikerketa entitatea, bere jarduerak garatzen dituena Nafarroarako interes zientifikoa duten esparruan.

b) Osasun Ikerketarako Institutua: osasun ikerketarako institutuak (OII) ospitale batean kokatutako ikerketa-entitateak dira, ikerketa traslazonala egiteko eginkizun nagusia dutenak.

c) Zentro Teknologikoa: ikerketa entitatea, funtsean teknologia sortzen, garatzen eta enpresarera transferitzen duena.

d) Enpresaren arloko I+G+b unitatea: ikerketa entitatea, funtsean garapen esperimentalean aritzen dena bereziki, eta bere enpresa titularren I+G+b arloko beharrak betetzera bideratua.

e) Entitate bakanak: dibulgaziorako entitatea, funtsezko eginkizuna duena gizartean ezagutzaren hedapena sustatzea, esaterako ezagutzaren transferentzia Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen artean, edo, aurreko moten artean ez egonik ere, I+G arloarekin lotutako beste entitate batzuen artean.

f) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzio eragileen koordinatzailea da sistemaren eragile guztien koordinazioa egiten duten eragileak, eta Nafarroako zientzia, teknologia eta enpresaren arteko erlazioa dinamizatzen duena”.

18. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

3. epigrafe bat gehitzeko zuzenketa, 5. artikuluko 2.b) puntuan, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzio eragileen eskubide eta betebeharrei buruzkoan. Hona testua:

“3. Bidezko den orotan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea aplikatuko da eta Nafarroako I+G+b Sistemako eragileak Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren kontrolean egonera dira”.

Zioak: Sistemaren gardentasun eta jardunbide egokietarako bermeak berrestea.

19. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

d) letra bat gehitzeko zuzenketa, 5. artikuluko 2. puntuan, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzio eragileen eskubide eta betebeharrei buruzkoan. Hona testua:

“d) Klausula sozialak betetzea

Langileen kontratazioan bete beharko dira klausula eta baldintza sozialak eta lan-arlokoak, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritako horiek edo dagokion araudi sektorialekoak, azken hori langilearendako mesedegarriagoa den heinean”.

Zioak: Klausula sozialak sartzeko eta, kasua denean, Kontratu Publikoei buruzko Foru Lege onetsi berria betetzea, prekaritate handiko sektore batean.

20. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa, 6.3.b) artikuluan jasotako 3. betebeharraren bukaeran, unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak direla eta.

“5.a Enpresen sektorerako ikertzaileen transferentzia sustatzea.”

Zioak: Ikerketa lanetan izaera publikoko eragileak ere ari direnez, ez da ulertzen haiek bazter uzteko proposamena. Eginkizun horiek dituzten erakunde publikoek saiatu behar dute profesional onenak edukitzeen haien zerbitzurako. Gainera, saiatu behar da ikertzaileek autonomia handiena izan dezaten, behar diren prozesuak modu objektiboan lantzen direla bermatzeko, interes partikularak alde batera utzirik.

21. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA Y PODEMOS AHAL-DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“6. artikulua. Unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak.

1. Unibertsitateek, ikerketa zentroek, osasun ikerketarako institutuek eta zentro teknologikoek Nafarroako I+G+b sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen gisara akreditatu ahalko dira, eta I+G+b jarduerak eginen dituzte. Akreditazioa lortzeko, 4. artikuluan eskatutako baldintzak betetzeaz gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Plantillan ikertzaile doktoreak izatea.
- b) I+G+b arloko proiektuak egitea.
- c) Nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan parte hartzea.

2. Unibertsitateek, ikerketa zentroek, osasun ikerketarako institutuek eta zentro teknologikoek eskubide hauek izanen dituzte:

- a) Nafarroako I+G+b Sistemako eragileek berez dituzten eskubide guztiak.
- b) Deialdi berariazkoetan parte hartzea.

3. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragile guztiak berez dituzten betebeharez gain, unibertsitateek, ikerketa zentroek, osasun ikerketarako institutuek eta zentro teknologikoek honako betebeharrak ere izanen dituzte: -

a) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten betebeharrak guztiak.

b) Bikaintasuneko betebeharrak:

1.a Aholku emateko nazioarteko batzorde zientifiko-teknologiko bat izatea, urtero zentroa baloratzen duena eta zuzendariaren hautapenean parte hartzen duena.

2.a Plantillan behar den doktore portzentajea izatea akreditazioari eusteko. Gutxienez ere langile tekniko eta ikertzaileen ehuneko hamar izanen dira.

3.a SINAIko eragile gisa, akreditaziorako beharrezkoak betetzeari eustea.

4.a Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatutako aldi behingo ebaluazioak onartzea.

5.a Bere ikertzaileen jarduera zientifikoa neurtzea, baloratzea eta saritzea.

c) Transferentziako betebeharrak:

1.a Eragileen arteko elkarlana irakaskuntzan, prestakuntzan eta tesien kozuzendaritzan.

2.a Eragileen arteko ikertzaileen trukea sustatzea.

3.a Enpresaren sektorerako ekitaldi eta prestakuntzak antolatzea eta horietan parte hartzea.

4.a Enpresen sektorearekin I+G+b arloko proiektuak egitea.

5.a Enpresen sektorerako ikertzaileen transferentzia sustatzea.

6.a Eragileen proiektuen, jardueren eta emaitzen hedapena egitea.

7.a Bere ikertzaileen transferentzia-jarduera neurtzea, baloratzea eta saritzea.

d) Finantzaketa dibertsifikatua izatea, eta gutxienez ere izatea finantzaketa publikoa, eskualdekoa, Europakoa, nazionala, eta finantzaketa pribatua.

22. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

II. kapituluaren 6. artikulua –Unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak– 1. puntuaren a) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin aldatuko da:

“a) Ikertzaileak izatea plantillan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa aintzat hartuta”.

Zioak: “Doktoratuak” hitza kentzen da. Aurreko artikuluan, 5.ean, esaten den bezala, “baloratuko dira doktore titulua izatea zentroaren I+G+b arloren batean, master bat enpresen zuzendaritza eta administrazioan, argitalpenak, patenteak eta arloan nazioarteko esperientzia”; orain doktoratua izatea eskatzeak, beste edozein esperientziaren edo faktoreren gainean, diskriminatzailea dirudi.

23. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6.3.b) artikuluan jasotako 3. betebeharraren bukaeran, unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak direla-eta, honako testu hau gehitzea:

“...eta I+G+b politiketan zein ekintzetan interesa duten sare sozialeko eragilean...”

Zioak: Lege honetan transferentziak ez dira ikusi behar bakarrik enpresen sektorerara bideratuta, sare soziala ahazturik.

24. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6.3.b) artikuluan jasotako 6. betebeharraren bukaeran, unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak direla-eta, honako testu hau gehitzea:

“...gizarte-, enpresa- eta produkzio-sareetan, Administrazio Publikoetan eta gizartea, oro har”.

Zioak: Gizarteko eragile guztien arteko hedapena bermatzea.

25. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. artikulua –Enpresaren arloko I+G+b unitateak– 1. puntuaren a) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin aldatuko da:

“a) Plantillan ikertzaileak izatea.

Zioak: “Doktoratuak” hitza kentzen da. 5. artikuluan esaten den bezala, “baloratuko dira doktore titulua izatea zentroaren I+G+b arloren batean, master bat enpresen zuzendaritza eta administrazioan, argitalpenak, patenteak eta arloan nazioarteko esperientzia”; orain doktoratua izatea eskatzeak, beste edozein esperientziaren edo faktoreren gainean, diskriminatzailea dirudi.

26. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. 7.3.b) artikulua bukaeran honako testu hau gehitzea:

“Kasua denean saiatuko da, ezarrita legokeen moduan, gizarterako bidezko itzulketak, Administrazio Publikoen bidez”.

Zioak: Entitate publikoek bultzatutako, garatutako, parte hartutako edo finantzatutako ikerketa eta garapen teknologikoek ekartzen duten edozein onuraren aprobetxamenduz da iritsiko sektore pribatura bakarrik, gizarte osora iritsi behar delako.

27. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

8. artikulua aldatzeko zuzenketa, Nafarroako I+G+b Sistema koordinatzeari buruzkoa. Honela geldituko litzateke:

“8. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistema Koordinatzeko eta Ebaluatzeke Agentzia.

1. Nafarroako I+G+b Sistema Koordinatzeko eta ebaluatzeke Agentzia da sistemaren eragile guztien koordinazioa egiten duen eragilea, haren jarduerak ebaluatzen dituena eta Nafarroako zientzia, teknologia eta enpresaren arteko erlazioa dinamizatzen duena.

2. Nafarroako I+G+b Sistema Koordinatzeko eta Ebaluatzeke Agentziak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrean Nafarroako I+G+b Sistemako eragileen solaskide gisa aritzea.

b) Nafarroako I+G+b Sistemako eragileak, jarduerak eta baliabideak ebaluatzeke prozesua antolatzea eta garatzea.

c) Nafarroako I+G+b Sistemako eragileen bikaintasuna hobetzeko laguntza, honako hauen bidez: jardunbide egokiak, nazioarteko batzorde zientifiko-teknikoak hautatzen laguntzea, Europa-ko proiektu eta sareetan parte hartzen laguntzea.

d) Nafarroako I+G+b Sistemako eragileen lankidetzak hitzarmenak sustatzea, beren bikaintasuna, gaitasunak eta lehiakortasuna hobetzeko.

e) Nafarroako azpiegitura zientifiko-teknikoen datu-basea eta haren erabilera partekatua kudeatzea.

f) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen I+G+b arloko argitalpen eta proiektuen gordailu bat kudeatzea, kontuan hartuta hizkera ez sexista erabili beharko duela, emakumeenganako bereizkeria islatzen duen irudi oro edo estereotipo sexistak saihestu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, presentzia orekatuari eta rolen pluraltasunari lotutako balioak dituen irudia sustatu.

g) Nafarroako I+G+b Sistemak enpresei eta gizarteari buruz duen ezagutza hobetzea, baita bere eragileei eta horien gaitasunei buruzkoa ere.

h) Nafarroako eragile eta enpresen arteko elkarlaneko eta transferentziako I+G+b proiektuak koordinatzea.

i) Dibulgazio zientifiko-teknikoko ekitaldiak eta sariak antolatzea.

j) Laguntza ematea homogeneizatzeko eta eskualdeko, nazioarteko eta Europako administrazioak eskatutako estandarretara egokitzeko, eta ekonomia, giza baliabideak eta eragileak kudeatzeko sistemak hobetzeko.

k) I+G+b arloa dinamizatzea, bai Nafarroako I+G+b Sistemari bai enpresen sektorean.

l) Nafarroako I+G+b Sistemako eragileak Nafarroako lurraldetik kanpo daudenean, horien presentzia dinamizatzea, eta informazioa ematea, Nafarroako Gobernuarekin batera.

m) Zaintzea Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek betetzen dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak, foru lege honetan jasotzen direnak”.

Zioak: Bermatu egin behar da Nafarroako I+G+b Sistemaren kontrol publikoa, beti ere saiestuz sistema interes partikularren menpean egotea. Tresna guztiak ebaluazio agentzia bakar batek ebaluatu behar ditu, neutraltasuna bermatuz eta irizpide desberdintasuna saiestuz.

28. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA Y PODEMOS AHAL-DUGU

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

8. artikulua –Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioke eragileen koordinatzailea– ondoren artikulua berri bat gehitzea:

“Artikulu berria. Entitate bakanak.

1. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) entitate bakan gisa akreditazioa lortzeko, 4. artikuluan eskatutako beharkizunak betetzeaz gain, honako beharkizun hauetakoren bat ere bete beharko dute:

a) Oro har gizarteari, haurrei edo helduei edo enpresei zuzendutako zientzia-hedapeneko edo dibulgazioke jarduerak egitea: dibulgazio-materia la sortzea, erakusketa, proiektzioak, ekitaldiak, sariak, ikastaroak edo bestelakoak.

b) Zientzien, matematikaren, ingeniariaren eta teknologiaren arloko prestakuntza sustatzea –STEM (Science, Technology, Engineering and Mathematics) deitu ohi denaren sustapena–

c) Lankidetzan jardutea I+G+b egiten duten eragileekin eta Nafarroako I+G+b Sistemako eragileen I+G+b emaitzen dibulgazioaren eta hedapenaren arloke eragileen koordinatzaileekin.

d) I+G+b laguntzeko beste jarduerak batzuk.

2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) entitate bakanek honako eskubide hauek dituzte:

a) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek berez dituzten eskubide guztiak.

b) Laguntza deialdi berariazkoetan parte hartzea, parte hartzeko eta/edo laguntza lortzeko beharkizunetako bat denean Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAL) entitate bakan bat izatea.

29. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

9 artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“2. Departamentu horrek kudeatuko du erregistro hori, eguneraturik eta osorik izatearren Nafarroan I+G+b arloan aritzen diren entitateen zerrenda, eta bermatuko du lege honek ezartzen dizkieten betebeharrak betetzen eta gordetzen dituztela”.

Zioak: Ebaluazioko eginkizunak, irizpide desberdintasuna saiheste aldera, entitate bakar batekin eginen ditu, Nafarroako I+G+b Sistema Koordinatuzeko eta Ebaluatzeko Agentiak, hain zuzen.

30. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. kapituluaren 11. artikuluari –Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua– 4. puntua gehitzeko zuzenketa; honako hau da testua:

“4. Departamentu eskuduneko agintari nagusiak erregelamendua onetsi eta hurrengo bi asteetan Nafarroako Parlamentua informatuko da”.

Zioak: Bozketarik egin gabe bada ere, garrantzitsua da gai hauek Parlamentura modu automatikoan ekartzea.

31. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

12. artikuluari 2. puntu bat gehitzeko zuzenketa, Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren eginkizunak direla-eta. Hona testua:

“2. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluari behar adina baliabide emanen zaizkio dituen eginkizunak garatu ahal izateko, besteak beste teknologia, ekonomia eta gizarte arloko prospektibako zereginak”.

Zioak: Kontseiluak bere eskumeneko eginkizunak betetzen dituela bermatzea.

32. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. kapituluaren 13. artikularen –Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren osaera– 1. puntuari h) letra gehitzeko zuzenketa; honako hau da testua:

“h) Pertsona bana Nafarroan kokatuta egon eta aurreko urtean foru lurraldean I+G+b arloko inbertsioaren liderrak izan diren hiru enpresak ordezkatzeko”.

Zioak: Ekarpen pribatua beti dago publikoaren gainetik; horregatik, garrantzitsua da haren presentzia izatea eta haren konpromisoa saritzea.

33. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

13. artikuluko 1. puntuari h) apartatu bat gehitzeko zuzenketa, Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren osaera dela-eta. Hona testua:

“h) I+G+b sektoreko langileen bi ordezkari, langileek izendatuak”.

Zioak: Langileen parte hartzea laguntzea foru lege honetan jasotako prozesu guztietan.

34. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA Y PODEMOS AHAL-DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

13. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa.

“13. artikulua. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren osaera.

1. Nafarroako Ikerketaren eta Berrikuntzaren arloko Aholku Kontseiluak kide hauek izanen ditu:

a) Nafarroako unibertsitate bakoitzak proposatutako pertsona bat.

b) Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren arlo bakoitzeko pertsona bat, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileek proposaturik.

c) Zientzia, teknologia eta berrikuntza planean ezarritako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren arlo bakoitzeko pertsona bat, I+G+b arloan nazioarteko izen ona eta sinesgarritasuna dituen, ahal dela arlo teknologiko horretan puntakoa den herrialde batean aritzen dena. I+G+b arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatuko du.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan I+G+b arloan eskumenak dituen departamentuko pertsona bat.

e) Kanpo ekintzaren arloan eskuduna den departamentuko pertsona bat.

f) Osasun Departamentuko pertsona bat.

g) Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen koordinatzaileak izendatutako pertsona bat.

h) Funtzionarioen artean izendatutako pertsona bat, kontseiluko idazkari lanak beteko dituen, hitzarekin baina botorik gabe.

2. Titularrak izendatzerakoan, ahaleginak eginen dira emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, halako moduz non sexu bakoitzeko pertsonak ez duten gaindituko ehuneko hirurogeiko muga eta ez diren izanen guttizkoaren ehuneko berrogei baino gutxiago.

3. I+G+b arloan eskuduna den departamentuaren titularrari dagokio I+G+b arloko Aholku Kontseilua osatuko duten pertsonak izendatzea.

4. I+G+b arloko Aholku Kontseiluko lehendakaria eta lehendakariordea bere kideen artean aukeratu dituzte Kontseiluko kideek.

5. Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluko kide izatea ez da ordainduko, baina joan-etorrien eta egonaldien gastuak ordainduko zaizkie artikulu honen 1. apartatuko c) letran aipatzen direnei”.

35. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. kapituluaren 14. artikulua –Nafarroako Berrikuntzaren Behatokia– 3. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin aldatuko da:

“3. Behatokiak honako informazio zientifiko-teknologiko hau argitaratuko du, betiere formatu unibertsal eta berrerabilgarriak erabiliz, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Foru Lege indardunak ezartzen duen bezala.

Zioak: Datuetarako sarbide unibertsala eta haien berrerabilgarritasuna sustatu behar dira.

36. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

15.1.b) artikuluko 2. apartatua kentzeko zuzenketa:

“2. Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) iker-tzaileak enpresa-sarera transferitzea”.

Zioak: Nafarroako I+G+b Sistemak, dagozkion eginkizunetarako, ahal diren ikertzaile onenak eduki eta mantendu behar ditu.

37. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15. artikulua –Neurriak– 1. puntuari k) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“k) Neurriak ezartzen ahalko dira, errendimenduaren arabera laguntza oinarritzkoetarako deialdiak, ekonomikoa ez den jardura osorik ere finantzatzeko, zentroaren bikaintasuna eta ikerketarako gaitasuna eta transferentziakoa kontuan hartuta.”

Zioak: Egia bada ere artikuluan aipatzen direla, neurri gisa ezarri behar dira. Errendimenduaren arabera laguntza oinarritzko ezinbesteko tresna bat da zentro teknologikoetan eta ikerketa zentroetan ezagutza berriak garatzeko. Horren arrazoia da laguntza horrek aukera ematen diela zentro horiei behar den malgutasuna izan dezaten inbertsio-ahalegina zentratzeko unean-unean abangoardiako ezagutzak garatzeko erabakigarriak izan daitezkeen alderdietan: prestakuntza, ekipamendu berria eskuratzea, kontzeptu-probak garatzea, eta abar. Abangoardiako ezagutza teknologiko berriak sortzearena bezain dinamikoa den ingurune batean, funtsezkoa da uneoro nazioarteko testuingu-

ruak eskatzen dituen ahaleginak egitea, hartan sortzen ari baitira ezagutza horiek.

Horren froga da autonomia erkidegoetan dagoen laguntza-eredua, zeinean laguntza oinarritzokak, denboran zehar aplikatu denak, berekin ekarri baitu mundu mailan punta-puntako zentrozen multzo bat garatzea horietako bakoitzaren espezialitatean. Euskadiko zentro teknologikoen eta ikerketa zentrozen ereduari buruz ari gara; izan ere, haien garapena babestu da Emaitek Plus Programaren bitartez. Programa horrek haiek bikaintasuneko, enpresa-eragineko eta nazioarteko presentziako kota handienetara eraman ditu.

38. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

III. kapituluko 15. artikulua –Neurriak– 1. puntuari l) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“l) Talentua Nafarroako Foru Komunitatera itzultzea sustatzeko laguntzak ezartzeko neurriak, laguntza logistikoko, ekintzaitzarako eta kontratazioa laguntzeko sistemekin”.

Zioak: Arestian azpimarratu den bezala, Parlamentu honetan behin baino gehiagotan hartu du talentua Nafarroara bueltan ekartzeko konpromisoa.

39. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

III. kapituluaren 17. artikulua –Finantzaketa publikoa– 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin aldatuko da:

“1. I+G+b lege honetan aurreikusitako esparruetan sustatzeko, Nafarroako Gobernuak, aurrekontu orokorrak prestatzean, urtero handituko ditu I+G+b arloa sustatzeko neurrietara bideratutako zenbatekoak, harik eta 2030. urtean, gutxienez ere urteko aurrekontuko ehuneko hiru erabili arte. Horretarako, zientzia, teknologia eta berrikuntza Planeko aurrekontuko parte diren zenbatekoak bakarrik zenbatuko dira”.

Zioak: Zioen azalpenean honako zifra hauek aldatzen dira, eta horrek eragina du testuaren gainerako guztian: % 1,15, 2018an; % 2, 2019an; % 2,5, 2020an; % 2,75, 2025ean; eta % 3, 2030ean. 2030ari begira, anbizio gutxikoa dirudi Europar Batasunak dioenaren betekizunera mugatzeak.

40. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOAK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

20. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: SINAI ezin da izan gure tributu-sistematik kanpo dagoen konglomeratu bat.

41. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA Y PODEMOS AHAL-DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

21. artikuluarik –I+G+b-rako laguntzen deialdi publikoak– testua gehitzeko zuzenketa:

“4. Transferentzia bultzatzeko, laguntzen bidez sustatuko da ikerketa proiektuak batera egin ditzatela enpresek, teknologia zentroek eta ikerketa zentroek, osasun ikerketarako institutuak, Osasun Departamentuko zentroak eta unibertsitateak”.

42. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

21. artikuluarik 6. puntu bat gehitzeko zuzenketa, I+G+b-rako laguntzen deialdi publikoak direla-eta. Hona testua:

“6. artikulua. Nafarroako I+G+b Sistemaren baliabideak, eta deialdi horien onuradun izan eta baliabide publikoekin finantzatuak, hala nola proiektuak, planak edo beste edozein jarduketa, ezin izanen dira azpikontratatu % 25etik gorako portzentajea”.

Zioak: Gizarte eta lan arloko erantzukizuna bermatzea.

43. ZUZENKETA

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa. Artikulu berria 23. artikulua izanen zen.

“Artikulu berria. Ikerketarako eta berrikuntzarako laguntzen eta diru-laguntzen kudeaketa.

Biomedikuntzaren arloko eta osasun zientzien arloko ikerketa, garapen eta berrikuntzarako diru-laguntza guztiak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoaren arabera izanen dira, honako zehaztapen hauekin:

a) Ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako diru-laguntzak bideratu ahalko dira proiektu zehatzak finantzatzera, edo ustiakarako diru-laguntzaren izaera eduki ahalko dute, Nafarroako I+G+b Sistemako exekuzioko eragile gisa aitortutako zentroetako ikerketaren oinarritzko egitura sortu eta sustengatzeko behar diren egitura-gastuen finantzaketan parte hartzera bideratutako diru-laguntzarena.

b) Ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako diru-laguntza guztiak urte anitzekoak izan daitezke, garatu beharreko ekintzetan aurreikusitako ezaugarri eta epeen arabera.

c) Oinarri arautzaileek besterik ezartzen ez badute, ikerketarako, garapenerako eta ikerketarako diru-laguntzetan ematekoa den urteko zenbatekoa guztiz aurreratu ahalko da.

d) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko epeak zenbatzerakoan, diru-laguntza ematen duen ebazpenaren data hartuko da hasierako datatzat”.

44. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana egiteari buruzko artikuluari 3. puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Nafarroako Parlamentuak eztabaidatu eta bozkatu egingen du, Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana, Nafarroako Gobernuak igorriko diona”.

Zioak: Parte hartzea eskaintzea Nafarroako gizartearen eta haren borondate politikoaren ordezkari.

45. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planaren gauzatzea eta jarraipenaren gaineko 29. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“2. Orobat, Nafarroako Foru Komunitateak gauzatuko ditu planaren gauzatearen eta helburuen betetze mailaren jarraipena, aldiari behingo ebaluazioa eta koordinazioa, Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseiluaren eta Nafarroako I+G+b Sistema Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Agentziako eragileen koordinatzailearen ekarpenak jasoz.

Zioak: Aipatzen den ekarpen bilketan aukerako izaera kentzea eta testua egokitzea lehenago aurkeztutako zuzenketetara.

46. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarra –I+G+b arloko inbertsio helburua Nafarroan– aldatzeko zuzenketa.

Botere publikoen jarduketara gidatzeko helburuz, Nafarroarako honako inbertsio helburu hauek ezartzen dira I+G+b arlorako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan:

I+G+b plangintza	2018	2019	2020	2025	2030
I+G+b-ren sustapenerako portzentajea aurrekontuetan	1,15	2	2,50	2,75	3

Zioak: Zioen azalpenean honako zifra hauek aldatzen dira, eta horrek eragina du testuaren gainerako guztian: % 1,15, 2018an; % 2, 2019an; % 2,5, 2020an; % 2,75, 2025ean; eta % 3, 2030ean. 2030ari begira, anbizio gutxikoa dirudi Europar Batasunak dioenaren betekizunera mugatzeak.

47. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA Y PODEMOS-AHAL-DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarraren titulua aldatzeko zuzenketa: “Lehen xedapen gehigarria” izena hartuko du.

48. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA Y PODEMOS AHAL-DUGU****TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Bigarren xedapen gehigarria. Osasun Departamentuko langileak.

“Osasun Departamentuko zentroetan edo harekin lotuta edo itunduta izan eta laguntza-jardueraz gainera ikerketa-jarduera egiten duten zentroetan beren zerbitzuak ematen dituzten langileak, langile ikertzaitzat hartuko dira Zientziari, Teknologiai eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen I. kapituluaren II. tituluan ezarritakoaren eraginetarako; hori ez da eragozpena izanen beren lan-erregulazioek ezartzen dituzten karrerako eta laneko baldintzetarako”.

49. ZUZENKETA**PODEMOS-AHAL DUGU****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Hirugarren xedapen gehigarria. Osasun Departamentuko langileak.

Osasun Departamentuko edo haren menpeko zentroetan lan egiten duten langileei lanbide-karreraren konputua egiteko, ikerketan soldatapean emandako denbora hartuko zaio kontuan, edozein administratibotan, salbu eta etetearen egoeran, betiere ikerketara emandako denbora lanbide-karrerara sartzeko eskubideak eskuratu direnetik aurrera eman baldin bada.

50. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren IV. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin aldatuko da:

“Hirugarren kapituluaren, behar diren neurriak jasotzen dira honako hauek bultzatzeko: ikerketa zientifiko eta teknikoak, berrikuntza, ezagutzaren transferentzia, zabalkundea, eta kultura zientifikoak, teknologikoak eta berritzaileak.

Ezartzen da zer neurri zehaztu behar diren, betiere, zientzia, teknologia eta berrikuntza plan bakoitzean, talentu zientifikoak eta ikertzaileak sustatzeko eta honako hauek bultzatzeko: ezagutzaren transferentzia, elkarlana, nazioartekotzea,

jasangarritasuna, espezializazioa, bikaintasuna eta bokazio zientifiko-teknikoa piztea.

Foru lege honek, I+G+b arloa sektore pribatuan sustatuko dela segurtatzeko, baita Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) finantzaketa eta hartan jasotako neurriak garatuko direla ere segurtatzeko, agintzen du ezen ekitaldi bakoitzean Nafarroako Aurrekontu Orokorrek egitean behar adina baliabide esleitu daitezela I+G+b sustatzeko neurrietarako, gutxienez ere finantzarioa ez den urteko aurrekontuko ehuneko bi.

Europar Batasunak helburu gisa finkatu du barne-produktu gordinaren (BPGd) %3 izanen dela I+G+b arloko inbertsioa. Foru lege honekin, Nafarroak bere egiten du helburu handiago bat 2030. urterako.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek gutxi gorabehera Nafarroako BPGd-aren %20 egiten dute; hortaz, I+G+b arloko inbertsio publikoa BPGd-aren %1ekoa izatea Nafarroako Aurrekontu Orokorren %5 adinakoa izatea da. Ehuneko 5 hori lortu behar da Nafarroan I+G+b arlorako erabilitako inbertsio publiko guztien baturarekin, hau da, Nafarroako Foru Komunitateak unibertsitateak eta I+G+b-ren sustapena finantzatzeko erabiltzen dituen zenbatekoak gehi Estatuak eta Europar Batasunak Nafarroan I+G+b arlorako erabiltzen dituztenak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan I+G+b arloaren sustapenerako erabilitako zenbatekoa urtero handitu beharko da, harik eta, 2030. urtean, foru lege honen 17. artikuluan ezarritako finantzaketa publikoaren helburuak lortzen diren arte, zifra hauekin: zehazki 2018. urtean %1,15; 2019. urtean %2,5; 2025. urtean %2,75; eta 2030. urtean %3. I+G+b arlorako baliabide publikoak sendotzeko bide horri eusten zaiola segurtatzeko, foru lege honetako xedapen gehigarri bakarrean jaso dira sektore publikoak I+G+b arloan aldi honetan izanen dituen inbertsio helburuak.

I+G+b arloaren balio-katea segurtatuko da, existitzen aurrekontu-baliabideen esleipenean behar diren neurriak jaso daitezela oinarritzko ikerketa, ikerketa aplikatua, garapena eta berrikuntza sustatzeko, horiek denek finantzaketa jaso dezaten.

Zientzia, teknologia eta berrikuntza Planarekin eta Estatuak eta Europako ikerketa politikako lehentasunezko ardatzekin bat datozen deialdi publikoen bidez banatuko dira I+G+b arloko jardueretarako laguntzak. Orobat, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileentzako laguntza publikoak segurtatu beharko dute eragileen bikaintasunera bideratuko direla, eta barnean izanen dituzte,

balorazio irizpide gisa, bikaintasun eta hobekuntza adierazleak.

Laguntza deialdiek sustatuko dute ikerketa proiektuak batera egin ditzatela enpresek, teknologia eta ikerketa zentroek eta unibertsitateek, transferentziari laguntzeko.

Beste aurreikuspen bat jaso da, alegia deialdien bidez finantzatzen ahalko direla Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) eragileen zeharkako gastuak, Europako deialdietan finantzatzen diren

zeharkako gastuen portzentajeekin bat, horrela Europako eta eskualdeetako deialdiak homogeneizatzeko, bateratuta egon daitezen eta eragileentzat denak erakargarriak izan daitezen lortzeko.

Zioak: Honako zifra hauek aldatzen dira, eta horrek eragina du testuaren gainerako guztian: % 1,15, 2018an; % 2, 2019an; % 2,5, 2020an; % 2,75, 2025ean; eta % 3, 2030ean. 2030ari begira, anbizio gutxikoa dirudi Europar Batasunak dioenaren betekizunera mugatzeak.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33.2 artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak foru lege proposamen bat aurkeztu du, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33.2 artikulua aldatzekoa, eta eskatu du irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aipatu foru lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33.2 artikulua aldatzekoa.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33.2 artikulua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontuei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak, Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bateginaren 33. artikuluan aldaketa bat egin zuen. Aldaketa horrek 33. Artikuluari idatz-zati bat erantsi zion, honakoa hain zuzen ere, hitzez hitz:

“2. Hautapen probak gainditu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako edozeinetan, euskaraz edo Europar Batasuneko edozein hizkuntza jakin beharra duten lanpostuetan sartzen direnek, aurrerago, beren administrazio publikoan hutsik dauden eta hizkuntza hori jakitea nahitaezkoa duten lanpostuak betetzeko deialdian baizik ez dute parte hartu ahal izanen.

Aurreikuspen hori ez da aplikatuko hautapen prozesuaren ondorioz interesdunak betebeharrak ezarria ez zuen lanpostu bat eskuratzen duenean, eskatutako hizkuntza aintzat hartu gabe.”

Aldaketa horrek bidegabekaria nabarmena dakar, langila jakin batzuei lanpostu berri bat eskuratzea galarazten baitie, lanpostu hori betetzeko eska litezkeen baldintza guztiak bete arren.

Ez dago inolako justifikaziorik eskubideetan horrelako murrizketa bat egiteko, eta ez dago inolako arrazoi objektiborik langile publiko jakin batzuei lanpostu batzuk eskuratzea galarazteko,

lanpostu horiek betetzeko baldintza guztiak betetzen badituzte eta haietara gainerako hautagaien baldintza berdinetan aurkezten badira.

Artikulu bakarra. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 33. artikuluko 2. idatz-zatia honela idatziko da:

“2.- Hautapen probak gainditu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako edozeinetan, euskaraz edo Europar Batasuneko edozein hizkuntza jakin beharra duten lanpostuetan sartzen direnek, aurrerago, beren administrazio publikoan hutsik dauden lanpostuak betetzeko deialdi guztietan parte hartu ahal izanen dute”.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da araudia alda dezan, halako moduan non Nafarroako kultur sentsibilitateak ordezkatu dituen Kulturaren eta Arteen Nafar Kontseilu parte-hartzaile bat taxutzen ahal izanen baita.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita araudia alda dezan, halako moduan non Nafarroako kultur sentsibilitateak ordezkatu dituen Kulturaren eta Arteen Nafar Kontseilu parte-hartzaile bat taxutzen ahal izanen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren V. tituluari jasotzen da Kulturaren eta Arteen Nafarroako Kontseilu berritua izanen dela foru erkidegoko Administrazioaren orga-

no aholku-emailea kulturaren arloan, Kulturaren Nafarroako Kontseiluaren ordezkari.

Kontseilu hori demokratizatzea eskatu dute beti kolektibo, espezialista nahiz talde politikoei, halako moduan non “aniztasunean eta lidergo partekatuan oinarritutako parte-hartzearen” aldeko apustu garbia egin baitute. Hartara, beharrezkoa da “Kulturaren Nafarroako Kontseilua sortzea – kulturaren esparruko eremu eta sentsibilitate guztiek hartuko dute parte Kontseiluan, eta guztiek izanen dute ordezkari-”.

2015ean eraturiko Kulturaren Nafarroako Kontseilua aurrekoak baino aniztasun handiagoarekin eratu zen, baina bere kideak hautatzeko parte-hartze prozesurik gabe eratu zen.

Ez zaio heldu kontseilukideak izendatzeko modua ezartzen duen araudia aldatzeari; izan ere, orain arte mantendu egin da 68/2013 Foru Dekretuaren 7. artikuluko xedapena, zeinak kulturaren arloko eskumena duen kontseilariari ematen baitio izendapen hori egiteko ahalmena.

Gure ustez, Kulturaren eta Arteen Nafarroako Kontseilua berritzeari begira beharrezkoa da araudi-aldaketari heltzea; hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du araudia alda dezan, halako moduan non Nafarroako kultur sentsibilitateak ordezkatu dituen Kulturaren eta Arteen Nafarroako Kontseilu parte-hartzaile bat taxutzen ahal izanen baita.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu palestinar herriaren eskubidea, bere lurralde Israelek indarrez okupatura itzultzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du palestinar herriaren eskubidea, bere lurralde Israelek indarrez okupatura itzultzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du palestinar herriaren Itzuleraren Martxa Handia mobilizazio baketsua, Israelgo Armada odolez eta suz erreprimitzen ari dena.

3. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Israelgo Armadak Itzuleraren Martxa Handian parte hartzen ari ziren gutxienez ere 100 palestinar erail izana (eta milaka zauritu izana), eta dolu-minak eta elkertasuna adierazten dizkie beren familiei.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du ezinbestekoa dela Espainiako Gobernuak eta Europar Batasunak Israeli behar adinako presioa egin diezaizoten eta ezarri beharreko zehapenak ezar die-

zazkieten, berehala amai dezan Israelgo Armadak palestinarren aurka darabilen errepresio kriminala.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du Espainiako Gobernuak bertan behera utzi behar dituela Israelgo Estatuarekiko harreman diplomatikoak, harik eta herrialde horrek palestinarren aurka darabilen errepresio kriminala amaitu arte.

6. Nafarroako Parlamentuak uste du oso larria eta nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa dela Estatu Batuetako lehendakariaren erabakia, zeinaren bidez bere enbaxada Jerusalem jarri baitu. Erabaki hori, legez kanpokoa izateaz gain, erregioan bakea lortzearen aurkakoa da.

7. Nafarroako Parlamentuak erabaki du adierazpen hau Palestinako Agintaritz Nazionalaren ordezkari eta Israelen Espainiako enbaxadari helaraztea”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu Xabierraldien ekitaldi tradizionala Hitlerren eta Francoren irudiarekin irudikatu izana.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Xabierraldien ekitaldi tradizionala Hitlerren eta Francoren irudiarekin irudikatu izana, Xabierko Gaztelurainoko erromesaldi horretan parte har-

tzen duten edo erromesaldiarekiko atxikimendua daukaten Nafarroa osoko milaka pertsonaren aurkako irain larri eta bidegabea izateagatik”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuaitu egiten baitu palestinarren aurka Israelgo gobernu sionista egiten ari den giza eskubideen urraketa larria.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuaitu egiten du palestinarren aurka Israelgo gobernu sionista egiten ari den giza eskubideen urraketa larria.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasun osoa adierazi nahi dio palestinar herriari, determinazio askerako eskubidea baitu, eta beste behin dio konponbide negoziatu baten alde dagoela, 1967an hitzartutako mugekiko bi estatutan oinarrituta, biek ala biek izaki askatasunean, bakean eta segurtasunean bizitzeko eskubide osoa.

3. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuna premiatzen du Israelen eta Palestinan nazioarteko legezkoatasuna betetzen dela begira dezan eta

giza eskubideen bortxaketa nahiz okupazio ilegala amai daitezten.

4. Nafarroako Parlamentuak arbuaitzen du AEBk Israelen duten enbaxada Tel Avivtik Jerusalemera aldatzea, palestinar herriaren aurkako eraso bat delako eta eremu horretako bake eta egonkortasunaren aurkako atentatua delako.

5. Nafarroako Parlamentuak herritarrei dei egiten die Naqba dela-eta egiten diren ekitaldi eta mobilizazio guztietan parte har dezaten Israelgo estatu sionistaren indarkeria salatzeke, eta palestinar herriaren aldeko elkarretaratze baterako dei egiten du. Elkarretaratzea Parlamentuaren atarian egingen da gaur, 12:00etan”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Nafarroako Zeliakoen Elkartearen manifestuarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Nafarroako Zeliakoen Elkartearen manifestuarekin, eta

osasunaren eta ekonomiaren arloetan neurriak bultzatzeko konpromisoa hartzen du, zeliakoen bizi-baldintzak errazteko eta hobetzeko”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu kolpismoaren apologia egiten duten jarduerak sustatzeko aurrekontu-finantzaketarik ez babesteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak kolpismoaren apologia –zuzenean nahiz zeharka, ohartuki nahiz oharkabez– egiten duten jarduerak sustatzeko aurrekontu-finantzaketarik ez babesteko konpromisoa hartzen du”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Zeliakoaren Egund Nazionalarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du maiatzaren 27an Zeliakoaren Egund Nazionala ospatzearekin, zeliakoaren kolektiboaren eskubideak errealitate bihurtzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du kolektibo horrekin, diagnostiko goiztiarra eta elikagai-segurtasuna eskatzeari dagokionez.

3.- Nafarroako Parlamentuak gaixotasun zeliakoaren tratamendua errazteko neurriak aztertze konpromisoa hartzen du; bereziki, baliabide gutxieneko pertsonena eta familiena.

4. Nafarroako Parlamentuak errealitate horrekiko hurbiltasuna agertzen du, eta gaixotasunak ukitutako nafarrei bizi-kalitaterik onena opa die”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabaki baitu jendaurrean salatzea edozein gobernu edo nazioarteko potentziak Gazako populazio zibilaren aurka egindako eraso eta eskubide-urraketa oro.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du jendaurrean salatzea edozein gobernu edo nazioarteko potentziak Gazako populazio zibilaren aurka egindako eraso eta eskubide-urraketa oro, eta herritarrek premiatzen ditu bat egin dezaten hori arbuia-tzeko egiten den deialdi eta mobilizazio ororekin”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa ea zertan den Nazio Batuen Erakundeak Palestinako errefuxiatuentzat duen Agentziari (UNRWA) aparteko ekarpena egiteari eta finantzaketarako tresna egonkor bat aztertzeari buruz hartutako erabakiaren betetzea.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea zertan den Nazio Batuen Erakundeak Palestinako errefuxiatuentzat duen Agentziari (UNRWA) aparteko ekarpena egiteari eta finantzaketarako tresna egonkor bat aztertzeari buruz hartutako erabakiaren betetzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2018ko martxoaren 5ean Mahaiak eta Eledunen Batzarrak adierazpen instituzional bat onetsi zuten aho batez, Nafarroako Gobernua premia-tzen zuena aparteko ekarpena egitera Nazio Batuen Erakundeak Palestinako errefuxiatuentzat duen Agentziari (UNRWA), presako izaerarekin, 2018ko ekitaldiko aurrekontuan, eta, halaber, UNRWArekin finantzaketarako tresna egonkor bat azter dezan, zeina 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan gauzatuko baita.

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu aipatu erabakia betetzeko?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, ETako presoentzat amnistia eskatzen duen EH Bilduren koordinatzaile nagusiaren hitzei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, ETako presoentzat amnistia eskatzen duen EH Bilduren koordinatzaile nagusiaren hitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zeure egiten dituzu EH Bilduren koordinatzaile nagusiaren hitzak, ETako presoentzat amnistia eskatzekoak?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusia langilez hornitze aldera onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusia langilez hornitze aldera onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide den Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko dituzu onetsitako mozioa betetze aldera, Nafarroako Liburutegi Nagusiak zerbitzu guztiak efizientziaz eman ahal izateko adina langile edukitzeari buruzkoa?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Galdera, legeak ezartzen duen 10 urteko epea iragan ostean, zenbait enpresaren kapitalean Sodenak parte hartzen jarraitzeko baimena luzatze aldera ez funts-ekarpen gehiagorik egin ez eta arrisku gehigarriak hartzearen baldintza bertan behera uzteko erabakiari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako galdera, legeak ezartzen duen 10 urteko epea iragan ostean, zenbait enpresaren kapitalean Sodenak parte hartzen jarraitzeko baimena luzatze aldera ez funts-ekarpen gehiagorik egin ez eta arrisku gehigarriak hartzearen baldintza bertan behera uzteko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako kontseilari Manu Ayerdi jaunak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak apirilaren 18an erabaki zuen “funts-ekarpen gehiagorik ez egiteko eta arrisku gehigarriak ez onartzeko” baldintza jartzea Sodenari, zenbait enpresaren kapitalean parte hartzen jarraitzeko baimena luzatzeko, legeak ezartzen duen 10 urteko epea iragan ostean. Halere, iragan maiatzaren 2an, Nafarroako Gobernuak baldintza hori kentzea erabaki zuen, eta aldi berean luzapena baimendu zien honako enpresa hauei: Ysios Biofund (2021eko abenduaren 31ra arte), Inveready Seed Capital SCR (2021eko abenduaren 31ra arte), eta Caviar Per Sé, SL (2023ko abenduaren 31ra arte).

Nafarroako Gobernuak zer arrazoi izan du erabaki hori hartzeko –aipatutako bermea kentzea eta luzapen horiek ematea–?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, erabilera-lagapeneko araubideko etxebizitza-kooperatiben ereduari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, erabilera-lagapeneko araubideko etxebizitza-kooperatiben ereduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkezten

du, Eskubide Sozietako lehendakariorde Miguel Laparra jaunak batzordean ahoz erantzun dezan.

2017ko urrian egindako Erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki hau onetsi zuen, Podemos-Ahal Duguk proposaturik:

“Bultzada sendoa ematea, legegintzaldia amaitu baino lehen, erabilera-lagapenaren araubideko bi etxebizitza-kooperatibari, gutxienez ere; horiek, esperientzia pilotu gisa, hurrengo legegintzaldirako bidea erakusten joan daitezen”.

Galdera:

Zenbait udalek iragarri dute abian jarriko dutela erabilera-lagapenaren araubideko kooperatiben eredu. Hori ikusita,

Etxebizitza departamentutik zer bultzada eman da irabazi asmorik gabeko eredu honetarako (lurzorua dela, diru-laguntzak direla edo kooperatibistekiko lankidetzak dela)?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an.

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, etxebizitzarako eskubidei buruzko lege proiektuaren gainekoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitzarako eskubideari buruzko lege proiektuaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietako lehendakariorde Miguel Laparra jaunak batzordean ahoz erantzun dezan.

Erkidegoaren egoera dela-eta 2017ko urrian egindako eztabaidan, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki hau onetsi zuen, Podemos-Ahal Duguk proposatuta:

“Erkidegoaren egoerari buruzko hurrengo eztabaidaren aurretik Etxebizitzari buruzko Lege bat aurkeztea. Lege horrek etxebizitzaren merkatu libre-

an kalteberak diren pertsonen babesa bermatuko du, programa-akordioan etxebizitza gaiei buruz jasotako akordio finkatuak betez, eta apustu eginen du errenta ordaintzeko berariazko diru-laguntza ekonomikoak ematearen alde, familiek horren beharra duten bitartean, etxebizitza ordaintzeko gaitasuna egokitzeko, eta, halaber, etxebizitzarako laguntza osagarri bat ezartzearen alde, prestazio bermatu gisa, errenta bermatuaren har-tzaile guztientzat”.

Galdera:

Zenbateraino egin da aitzina legegintza-prozesuan, eta zeintzuk dira Etxebizitzarako Eskubidea izateari buruzko Lege proiektu horretan planteatu nahi diren aurrerapauso nagusiak?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, N-121-A eta A-15 errepideetako obrei buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, N-121-A eta A-15 errepideetako obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ayerdi lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zeri zor zaio Nafarroako Gobernuak izan duen aurreikuspen txarra, N-121-A eta A-15 errepideetako obrak aldi berean egitekoa?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroaren zor publikoari buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroaren zor publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten

du, Nafarroako Gobernuak Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran.

UPNren Gobernuak zor jaulkipenak egin zituen 2008an (180 milioi euro, % 5,8ko interes-tasarekin, epe-muga 2018ko ekainaren 9an daukana) eta 2011n (60 milioi euro, % 4,875eko interes-tasarekin, epe-muga 2018ko urriaren 31n daukana), zeinak orain dela gutxi iragarri diren 206 milioi euroko birfinantzaketa-operazioen bidez amortizatu nahi baitira.

Zor publikoaren azterketari, analisiari eta jarduketari buruz Parlamentu honetan lanean ari den ponentzian aurkeztutako txostenaren arabera, orain arte 191 milioiko zorra dago bidegabetzat jo litekeena eta amortizatzeko zenbatekoen balizko kitak egite aldera finantza-entitateekin negoziatuz litekeenak. Txosten hori aztertu al duzu?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Laura Lucía Pérez Ruano

Galdera, jakitekoa ea zer ekimen garatuko dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroako kontzientzia-eragozpenaren eta intsumisioaren mugimendu antimilitaristari dagokionez.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea zer ekimen garatuko dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroako kontzientzia-eragozpenaren eta intsumisioaren mugimendu antimilitaristari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentari honek honako hau jakin nahi du kontzientzia-eragozpenaren eta intsumisioaren mugimendu antimilitaristak Nafarroan izandako eraginari eta garrantziari dagokionez:

Nafarroako Gobernuak zer ekimen ezarri eta garatuko ditu horri dagokionez?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Berriztu Elkarteari eta Eguneko Zentroko 16 toki misto kudeatzeko laguntza kontratuari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Berriztu Elkarteari eta Eguneko Zentroko 16 toki misto kudeatzeko laguntza kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernuaren erregistroan ba al dago, 2018an, Berriztu Elkartearen eskabiderik edo idazkirik, Eguneko Zentroko 16 toki misto kudeatzeko laguntza kontratuarekin zerikusia duenik, alde batera utzirik gero hori erretiratu izatea? Hala baldin bada, eskabidearen edo eskabideen nahiz idazkiaren edo idazkien kopia eskatzen dugu.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, nahitaezko soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozleei eta intsumisoei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, nahitaezko soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozleei eta intsumisoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek honako hau jakin nahi du nahitaezko soldadutzaren kontzientzia-eragozleei eta intsumisoei buruz eta haiek pairatutako epai penal eta zibilei buruz:

Nafarroako Gobernuak ba al du beren militantzia antimilitarista dela-eta espetxe- eta inhabilitazio-zigorrak pairatu zituzten pertsonen zerrenda xehakaturik?

Kasua bada, Nafarroako Gobernuak ba al du informazio hori biltzeko asmorik? Zer ekimen, jarduketeta edo hitzarmenen bidez eginen du?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, nahitaezko soldadutza dela-eta Armadarekin lankidetzan aritu ez ziren udaletako kargudun publikoen aurkako prozedura penal eta zibilei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, nahitaezko soldadutza dela-eta Armadarekin lankidetzan aritu ez ziren udaletako kargudun publikoen aurkako prozedura penal eta zibilei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek honako hau jakin nahi du nahitaezko soldadutzako prozedurak zirela-eta Armadarekin lankidetzan ez aritzeagatik udaletako kargudun publikoek aurre egin behar izandako prozedura penal eta zibilei buruz:

Nafarroako Gobernuak ba al du zehapen-prozedurei, salaketei eta abar aurre egin behar izan zieten udal kargudun publikoen zerrenda xehakaturik?

Kasua bada, Nafarroako Gobernuak ba al du informazio hori biltzeko asmorik? Zer ekimen, jarduketa edo hitzarmenen bidez eginen du?

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro